

**LUIS BARAIAZARRA TXERTUDI IDAZLE MEÑAKARRAK
JASO ZUEN *BILBOKO LIBURU AZOKAREN* 2006KO
“*URREZKO LUMA*”**

Karmel aldizkari honen gorabeherak hurretik jarraitzen ditugunok berri pozgarri bat gozatzeko aukera izan genuen aurten-go ekainaren 5ean. Egin-eginean ere, Bilboko Liburu Azokak azken urte hauetan ekitaldiz ekitaldi eman izan duen “*Urrezko Luma*” aldizkari honetako idazle eta euskarri dugun Luis Baraiazarra euskaltzain urgazleak jasoa izatea.






Sari honen balioa ongi ulertzeko esan beharra dago, egunkariren batean agertu zena ukatuz, *Urrezko Luma* ez diola *Bilboko Liburu Azokak* idazlan zehatz bati ematen, euskararen nahiz euskal letren alde gogor ahalegindu diren idazle eta ikertzaileen lan osoari baino. Behar bada, iazko gabonetan kaleratu izan den Luisen "*Nire umetako Meñaka*" liburu paregabeak (dagoneko agortuta) azken bultzada emango zion hautagaien artean bere izenari. Bestalde, gogora ekarri beharra dago, azken urte hauetan euskaltzale ikertzaile eta idazle bizkaitarrak izan dituztela gogoan Bilboko Liburu Azokako antolatzaileek.

Bilboko Liburu Azokak egin ohi dituen ekitaldi ugarien artean ekainaren 5ean Areatzako karpapean burutu zen sari-emate ekitaldia oso hunkigarria izan zen. Aurreko urteetan ez bezala, gainezka zegoen aretoa. Familiartekoekin batera hainbat euskaltzale eta idazle izan ziren bertan astegun buruzuria zen arren. Horien artean, *Karmel* aldizkari honetako zenbait idazleekin batera, *Adorez* hiztegiak burutu dituen *Bostak bat* kultur lantaldeko taldekideak.

Bilboko Liburu Azokako ordezkari nagusia den Asier Muniategi jaunak eman zion hasiera ekitaldiari, euskararen alde hainbat lan egin eta *Urrezko Luma* saria eskuratu duten zenbait euskaltzale gogora ekarriz: On Jose Miel Barandiaran (1991), Jon Bilbao "Euskal Bibliographia" (1994), Federico Krutwig (1997), Bittoriano Gandiaga (1998), Gotzon Garate (1999), Pedro Pujana (2000), Leopoldo Zugaza (2001), Karmelo Etxenagusia (2003), Jose Antonio Arana Martija (2004) eta Ander Manteola (2005). Aurrerantzean guzti horien artean izango dugu Luis Baraiazarra Txertudi ere.

Horren ostean, ekitaldian ohikoa denari jarraituz, Patxi Uribarren jaunak egin zuen aurtengo saritua dugun Luis Baraiazarren aurkezpena, beraren bizitzari, izaerari eta lanari buruzko datu ugari aipatuz. Horren ostean, *Urrezko Luma* jaso zuen Bellen Greaves, Bizkaiko Kultura diputatuaren eskutik. Jarraian Luisek berak hartu zuen hitza, zenbait gogoeta pertsonal ekitaldira etorritakoei eskainiz.





Egia esan, ekitaldi horrek oihartzun zabala izan zuen komunikabideetan, ugariak izan baitziren irratietarako zein egunkarietarako egin zizkioten elkarrizketak. Nabarmentzekoak izan ziren, baita ere, ekitaldiaren berri ematerakoan aho batez kale-ratutako laudorioak.

Karmel aldizkari honetan pozik hartu genuen gure idazle finari eskaini zioten omenaldi hori. Era berean, atseginez ematen dizuegu gure irakurle aspergaitz finak zaituztegun guztioi ekitaldiaren berri, bertan gertatutakoaren lekukotzat zenbait argazki eta ekitaldi horretako bi berbaldiak (Patxi Uribarren jaunarena eta Luisena) ale honetan eskainiz. Goza ditzazuela!

* * * * *



LUIS BARAIAZARRAREN BIZITZA ETA LANA (2006-VI-6)

Benetan lan pozgarria dot, hainbat urtetan ikaskide (bi kurso aurreragokoa) eta bizitzan zehar adiskide mina izan dodan Luisen bizitzako zertzelada nagusien eta lanen barri zuei eskaintzea.

1.- BIOGRAFIA LABURRA:

Luis Baraiazarra Txertudi, Bizkaiko Meñakan 1940. urtean jaioa dogu. Hamar neba-arreben artean azken aurrekoa.

Umetako urteak, 11 urte bete arte, Meñakan bertan bizi izan zen. 11 urte bete ostean, Zornotzako karmeldarren ikastetxera joan eta karmeldar apaizen karrera egin zuen: batxilerra: 2 urte Zornotzan, 3 urte Alesbesen (Nafarroan); nobiziatua: urte bete

(1) Larrean; nobiziatu osteko urtea (1) Markinan; **filosofia**: 3 urte Gasteizen; eta **teologia**: 4 urte Begoñako Karmelon. Bertan egin zen apaiz **1966an**.

Euskal heziketari dagokionez. honakoak nabarmenduko neukez: Zornotzan euskarako alfabetatze eskolak; Alesbesen debekatu egin eutsoen euskara egitea, laguneren artean euskara egitean ez ebelako nahikoa erdara ikasten; Larrean eta Markinan euskal giroa, batez ere elizako ospakizunetan. Bertako karmeldar gehienak euskaldunak eta euskaltzaleak ziren. Gasteizen ofizialki ezer ez euskaraz. Begoñako Karmelon, euskarako alfabetatze-eskolak izatea lortu eben batzuen artean, eta GO-GOZ karmeldar idazleen aldizkaria sortzea; hainbat lan idatzi zituen Luisek aldizkari horretarako.

Baina, Luisen benetako euskal ibilbidea abade egin ostean hasi zan. Abade egin eta hurrengo hiru hilabeteak Larrean egin zituan eta, gero, **1966. urtean** betirako Markinarako bidea hartu. Jakina, komentu bi horretako fraileak herri askotara joaten ziran abadeei laguntzen eta Luisek bere berbaldiak eta euskaraz gertatu beharra izaten eban. Markinara joan zan urtetik aurrera, Madrilen pastoral gaietan sakontzen egindako sei hilabeteaz aparte, bizitza osoa egin dau bertan.

2.- IKASKETA ARAUTUAK ETA LAN AUTODIDAKTIKOA:

Aurreko ferretan aitatu dogu Luisek ikasten egindako bide luzea. Apaiz egin ostean ekin eutson benetako alfabetatzeari edo euskara sakontzeari, hitzaldiak eta euskaraz prestatu beharrak bultzatuta. Aurrerantzean euskal liburuak izango ditu bere bizitzako bidelagunak. Horrela, beharizanek eta gogo biziak bultzatuta heziketa arloko prestakuntza aberasten eta euskara sakontzen jarraituko eban.

Edonola bere, neurri handi batean, gutxienez, autodidakta izan dogu Luis euskarari dagokionez. Laster hasi zan idazten bere bizitzako lanik zabalena eskaini deutson *Karmel* karmeldar aldizkarian. Ikasketak egiterakoan aita Amalio karmel-

rraren "*Preceptiva literaria*" liburuan ikasitakoak nahiz euskal olerkiak (*Mila euskal olerki eder*) eta klasikoak (*Frai Bartolome, Mogel,...*) irakurtzean jasotakoak bere egin, eta lanetan euskara ederra agertzen eban.

Horretan, zer esanik ez, laguntza handia hartu eban Nafarroako San Joakin probintziako Karmeldarron artean euskarari dagokionez 1950etik 1980ra artean izan zan loraldi ederrak. Euren onenak emoten ziharduen hainbat euskaltzale sutsuk: Aita Akesolo, Santi Onaindia, Lon Arteaga, Migel Mari Juaristi, Fidel Sarriegi (probintziala izango zana), Jose Antonio Goiria (Txanton), Emiliano Barandiaran, Hipolito Larrakoetxea, Martin Uriarte eta abarrek... Urtero Markinan egiten zan bertsolarien eguna bere bultzagarri izan eban, jakina! Honek hainbatean indartu eban bere betiko bertso-zaletasuna.

Halan da bere, guzti horreek pizgarri izan arren norberak ekin behar euskara sakontzeari; horrela egin eban Luisek hizkuntza-ikasketak osotzen eta bere burua janzten eten barik jardunez, beraren ikasketa-garaiko hainbat ikaskidek horrelako urratsik emon ez eben bitartean.

Horrela, Markinan bertako ikastolak irakasle euskaldunak behar zituala eta maisu-karrera egin eban titulua Valladoliden, 1970n, lortuz. Geroago, irakaskuntzan urte asko jardun ostean, euskara sakondu nahirik, ikastolan lanean eta etxeko zereginak alde batera itzi barik jardunez, euskal filologia egin eban Deustuko unibertsitatean, lizentziatura 1982an lortuz.

Ikasketak egiten eta eskolak emoten jardun arren beti aurkitu izaten eban *Karmel* aldizkarian hiru hilabeterik behin lanen bat argitaratzeko astia. Eta ez, gainera, edonolako lanak!

3.- LUISEK EUSKARAZ EGINIKO LANA:

Luisen lan zabalaren aurkezpenik zehatzena eskaintzeko arloka zatituko ditut, bere lanak sarritan arlo desberdinak sare batean alkar loturik ageri badira bere:



3.1.- Aldizkarietako lana:

3.1.1. *Karmel* aldizkarian:

Luisek urteetan zehar egin dauan lan oparoaren alderik handienetarikoa karmeldarron *Karmel* aldizkarian ageri jaku. 1970. urtean hasita ia inoiz hutsik egin barik parte hartu dau bertan. Beraz, 140 idazlan inguru argitaratu ditu. Hainbat idazki eder eta atsegin plazaratu ditu, irakurle gosetien gozamenerako. *Karmel* aldizkarian egindako lan hori lau arlotan egin izan dau:

- a) Saiakera motako hainbat idazlan: gehienak euskararekin lotura dabenak dira, bestelako gogoetarik kaleratu badau bere.

- 1) Hainbat euskal idazleren biografiak edo barriak: *Barrensororen "Uztaro"* (1983); *Aita Santi, bertso eta oler-*

kietan murgildurik (1992-4); *Arbasoen lorratzean* (sei idazlaneko sorta 1980-1981ean idatziak; *Jan Baptiste Elisamburu, olerkari gozoa* (1991-2); “*Lanbru*” *hil arte leial* (1986-1); *Lazkao txikiren irudia hitzetan* (1993-2); *M. Larramendi euskal suspertzaile* (1991-1); *Mikel Zarate-ren oroitzapena* (1982-2/3); *Oibenarten itzala* (1990-3); *Onaindia, euskal letrei emana* (1996-1); *Aita Luki, karmeldar maitagarria* (1997-3); *Aita Hipolito, euskaldun gogoangarria* (2002-1); *Augustin zubikarai* (2004-3); *Frai Bartolome, iturri ugaria* (1999-1); *Angel Bidaguren olerkari* (1999-3); *William Rollo-ren “The basque dialect of marquina”* (1983-3/4).

2) Hainbat gai interesgarri: *Bizkaieraren auzia* (1985-2); *Bizkaiko loreak* (1988-2); *Laratz ondotik kontu kontari* (1984-1/2); *Horma urtetsuetatik kontu zaharrak* (1982-



1); *Gaua gauekoentzat* (1985-2); *Umoreari darion irribarrea* (1987-4); *Berbaroa bizkaiera zaharrean* (1999-1); *Lehenengo sermoigintza eta sermolariak oroituz* (1987-1); "*Zakurrak non mina ban mibia*" (1988-4); *Naturaren mintzoa* (2002-3); *Melodies basques* (1992-3)

3) Bertso munduarekin lotura daberen lanak: *Bertsolari txapelketaren ondoko galbaheketa* (1986-2); *Txapelaren itzala* (1990-1); *Txapelketa nagusiaren ondoko gogoetak* (1994-1); *Herriaren kantariak* (2003-1); *Kronika euskal bertsoetan* (2002-2)

b) **Orrazketa eta txukunketa lana:** Berau izan dau *Karmel* aldizkariak azken urteotan euskararen zuzentzailea. Bertan argitaratutako hainbat lan txukunek Luisen esku finarizor deute hain apain eta dotore plazaratzeko azken orrazketa.

c) **Hainbat itzulpen:** lanak zuzentzeaz gainera hainbat idazlan interesgarri euskaratu izan ditu mendeurrenak eta horrelakoak ospatzeko adituek nahiko euskara jakin ez eta erdaraz idatzi ondoren.

d) **Karmel-sorta:** *Karmel* aldizkariak sortutako sorta honetan ageri dira Luisen lanik luzeenak eta sakonenak:

– *Elizaren Historia Euskal Herrian* (1995) Julen Urkizarekin elkarlanean (bera da euskarazko testua). Egin dauan lanik ederrenetarikoa eta garrantzirik handienetarikoa.

– *Frai Bartolome Santa Teresa, idazlan guztiak* (200) Julen Urkizarekin elkarlanean. Edizio kritikoa. Bizkaiko klasiko honi buruzko lanik sakonena.

3.1.2. Beste aldizkari batzuetan

– **KILI-KILI** aldizkarian: aparteko lana egin dau Luisek; Jose Antonio Retolaza eta Iñaki Egurrola euskaltzale finen

ardurapean, umeentzako materialik ez zegoenean *KILI-KILI* aldizkariak eskaini izan dituen lanak orrazten nahiz testu batuak idazten. Bertarako itzulpenak ere egin izan ditu. Gaur egun aldizkari hori argitaratu ez arren, *Kiliberrri* izeneko liburuxkak kaleratzen ditu noizbehinka, eta bertako euskararen azken orrazketak Luisen esku izaten dira.

– Beste batzuetan: *Zeruko Argian*, 1970. urtean hasita noizbehinka. *Olerti* poesia aldizkarian hainbat lan argitaratu zituen. Markina aldeko *Garaian* aldizkarian, *Bertsolari* aldizkarian. *Jakin*-en lan luze bat: *bizkera bizia eta txukuna bertsolaritzan* (1993).

3.2.- Lexikologia arloan eginiko lana:

Luisek, nire ustetan, euskararen arloan burutu dauan lanik handienetarikoa lexikologia arloan egindakoa izan da. Bizkaian azken 20 urte hauetan inork egin izan dauan lanik oparoenetarikoa. Lan erraldoi hori bi bidetik burutu izan dau:

3.2.1.- “ADOREZ HIZTEGIAK” sortako zutabe bat izan dogu.

Luis izan dogu Bosta bat taldeko kideok Adorez hiztegi-sortan jardunean izan dogun pertsona gaitu aparta. Lan horretarako pertsona gaitu bat behar genuela lantaldean konturatu ondoren, Luis ikusi genduan pertsonarik aproposena horrelako lan baterako:

- 1) prestakuntza egokia zuelako: irakasle-karrera eta euskal filologia
- 2) irakaskuntzako urteetako esperientzia
- 3) ahozko euskararen (bertsolaritza) eta euskalkien ezagutza sakona, batez ere bizkaierarena (Mendebaldeko eta Markinaldeko euskararena)
- 4) euskal klasikoen ezagutza handia
- 5) euskara txukuna erabiltzen zuen idazlea zelako.



Beraz, aurreko guzti horiek kontuan hartuz “Bostak bat” taldekook, definiziozko hiztegiak prestatzen hasi ginenean (*Euskararako hiztegia*) taldera ekarri genduan 1984an; eta 1988an eskolak emotetik askatu eta langile liberatu modura hartu. Lan horretan jardun izan du ordutik hona (17 urtetan). Idatzizko iturrietako euskara (Lino Akesolok prestatutako *Retanaren hiztegia* osorik aztertuz) eta ahozko iturrietakoa batu izan ditu. Hau da, *tradiziozko euskara idatzia eta bizi-bizirik dogun ahozko euskara*.

Luisek *ADOREZ* sortarako prestaturiko hainbat eta hainbat definizio aurki daitezkeez geroago etorri diren definiziozko hiztegietan, hitzez hitz kopiatuta edota orrazketa txiki batzuk eginik jasota. Hor ditugu bizkaieratik baturako bidean egindako ekarpen eder modura plazaratuta. “Bostak bat” taldeak “Adorez” hiztegien sortan argitaratutako lanetan honako liburu hauek ageri jakuz:



Sinonimoen Hiztegia - “Adorez 1”, 1982an; *Euskararako Hiztegia* “ - “Adorez 2”, 1986an; *Sinonimoen hiztegia antonimoduna* - “Adorez 3”, 1988an; *Euskararako Hiztegia Oinarritzkoa* - “Adorez 4”, 1990an; *Eskola-hiztegia irudiduna* - “Adorez 5”, 1991ean; *Europa Hiztegia* - “Adorez 6”, 1993an (+CD-ROM-a 1995ean); *Diccionario 3000 Hiztegia* - “Adorez 7”, 1996an (+CD-ROM); *Sinonimoen hiztegia antonimoduna* “ - “Adorez 8”, 1999an (+CD-ROM); *Diccionario Escolar 3000 Eskola Hiztegia* - “Adorez 9”, 2001ean (+CD-ROM); *Diccionario 3000 Hiztegia* (Eguneratua eta osatua) - “Adorez 7”, 2002an (+CD-ROM); *Eskola Hiztegia* (Oinarritzko hiztegia. Eguneratua, Berriztatua...) - “Adorez 5” 2005ean; *Euskal aditza* -Trinkoa - Bizkaiera - Zuberera - “Adorez 10”, 2006an.

Garrantzi handikoa izan da hiztegi guzti horietan Luisek eginitako ekarpena . Gaur egun zuzentzaile lanetan dihardu. Lan

handia, euskara batua finkatzeko nahiz euskalkiak batuan txertatzeko

3.2.2- Euskaltzaindiko hiztegi baturako batzorde berria (1991. urtetik hona) eta gramatika batzordean (1996tik hona).

Lan talde biotan bizkaieraren lekuko nagusia izan dogu, hiztegegintzan eta ikerketa lanetan lortutako argibideak eta bertara eron izan dituela. Sarri aitutzen da bizkaierako hitzen esanahia zehazterakoan L. Baraiazarra euskara baturako hiztegirako materialetan. Nire ustez Euskal Herri osorako egindako aparteko lana izan da. Osasuna lagun, bide horretatik luzaroan jarraituko dauelakoan nozue.

3.3. Itzulpengintzan eginiko lana:

Euskara gizarte modernora egokitu guran jardun izan dogun urteotan, Luisek ekarpen handiak egin ditu itzulpengintzan bere. Lan hori gainera, aspaldi hasita egin dau. Hemen beraren itzulpen-lan nagusienak baino ez ditut aipatuko:

- *Salbabide eta Laguntza*, 1975ean Bizkaiko Aurrezki Kutxak ateratako *Salvamento y Socorrismo* liburuxkaren itzulpena.
- *Bizargorri Itsaslapurra* (Kili-Sorta)
- *Leonardo da Vinci* (Kili-Sorta)
- *Kili-kili* komikiaren hainbat pertsonaia itzuli ditu.
- *Santa Teresa Lisieuxkoaren Idazlan Guztiak* (1996, elkarlanean)
- Teresa Lisieuxkoaren *Eskutzkribu autobiografikoak* (1996, euskaraz-frantsesez)
- Joan Gurutzekoaren *Erromantzeak* (1991)
- *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa* (Konstituzioak, Dekretuak, Adierazpenak eta Dokumentu osagarriak) (2003 Deustuko Unibertsitatea. 1.500 or.)

– “*Deus Caritas est*” (Benedikto XVI.a Aita Santuaren lehen Entziklika. 2006. Euskal Herriko Elizbarruti guztietara zabaltzeko asmoz Donostiako Elizbarrutiaren eskariz eginiko itzulpena)

3.4. Bertsolaritzan:

Luis ez dogu bertsolaria, arlo horretan bere pertsona jakintsuaren ezpalak hor-hemenka itzi baditu bere. Bizitzako gorabeherak direla tarteko (bateoak, jaunartzeak, ezkontzak, hiletak, gomutapenak, gabonetako Markinako umeen kale-jirak, urtebetetzeak, eskolako umeen jaiak...) hainbat bertso eder egin izan ditu laguntza eske etorri jakozanentzat. Halan da bere, arlo horretako bere lanik handienetarikoa 1994an hasi eban, *Karmel* aldizkarian “*Txapelketa Nagusiaren ondoko gogoetak*” lana argitaratu ebanean. Oihartzun zabala izan eban lan horrek bertsolarien eta bertsozaleen artean. Eta txapelketetan epaimahaiko izateko eskatu eutsoen. Horrela ohiko epaimahaiko izan da Eskolarteko, Bizkaiko eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusian (bi aldiz epaile eta beste behin ordezeko).

Bizkaiko bertsolari alkarteko idazkari bere luzaroan izan da. Lanok, baina, batez bere hor-hemenka gauetan izaten ziran txapelketetako jardunak lan nekezak eta astunak egiten jakozan gehienetan, jai bezperetan izaten zirelako, eta hurrengo egunean komentuan elizako lanei aurre egin behar izaten eutselako.

Gorago aitatu ditut *Karmel* aldizkarian bertsolaritzari buruz idatzitako lan batzuk.

3.5. Literatura arloko eta gainerako liburuak:

Arlo hau azkenerako itzi badot bere ez da garrantzirik ez daukalako; Luisen barruko zanetik literatura-ura bere bor-bor ibili izan da. Hainbeste eta era guztietako testuak irakurtzerakotan bere barruan edertasunaren deiaren eztenkadak bere sentitu izan ditu. Sarritan literatura-ildo hori hitz lauz idatzitako lanetan



bere ageri da. Dana dala, hemen inolako iruzkinik egin barik bere lanik ezagunenak gogora ekarriko ditut. Ikusiko dozuenez hainbat liburu idatzi ditu, bakarrean nahiz talde-lanean eta literatur sari bat baino gehiago irabazi bere bai.

4.5.1. Liburuak:

- *Euskal Herriaren Historia* (I, II): 1980an ikastoletarako materiala eskaintzeko asmoz bi liburukietan, "Gero-Mensajero" argitaletxeak "Kimu" sailean argitaratuak
- *Hitzezko txirlorak*. Donostian "Elkar" argitaletxeak 1985ean argitaratua. Olerki-liburua, 1981ean hasita Eus-

kal Herriko sariketetan lehenengo edo bigarren saria lortutako olerkien bilduma.

– *Aita Santi Onaindia eta Alfontso Irigoien bertso-gintzaren lekuko* (1993, elkarlanean)

– *Jon Lopategi, bertsozko mezularia* “Bertsolari liburuak” 2000

– *Frai Bartolome Santa Teresa, idazlan guztiak* (2000, Julen Urkizarekin elkarlanean)

- – *Nire Umetako Meñaka* (2005, Meñaka)

4.5.2. Liburuxkak lankidetzan, “Bidegileak” sortan:

– *Santiago Onaindia* (1998, Julen Urkizarekin elkarlanean)

– *Augustin Zubikarai* (1999, Julen Urkizarekin elkarlanean)

– *Lino Akesolo* (2002, Julen Urkizarekin elkarlanean)

– *Hipolito Larrakoetxea* (2005, Julen Urkizarekin elkarlanean)

4.5.3. Olerkiak (zenbait sari)


– 1980an: Laukizen eratzen zen “Lauaxeta” Sariketan (2. saria).

– 1981ean: Eusko Jaurlaritzak antolatu zuen Iparragirren Mendeurreneko Olerki-sariketan (1. saria).

– 1982an: Ondarroako Lore-jokoan Mendeurreneko Olerki-sariketan (2. saria).

– 1983an: Markina-Xemeingo Lore-jokoan Mendeurreko Olerki-sariketan (1. saria).

– 1984an: Eusko Jaurlaritzan antolatzen zuen Olerki-sariketan, Lizardi Saria (1. Saria).



4.5.4. Ipuinak (zenbait sari)

- 1982an: Bilboko Udaleko Ipuin Lehiaketa (aipamena).
- 1984an: Bilboko Udaleko Ipuin Lehiaketa (aipamena aurkeztutako lan bietan).

4.5.5. Bertso jarriak

- 1989an: Oresako Udalak antolaturiko "Orixe" Sarian (1. saria).

4. LUISEN EUSKARA MOTA ETA IZAERA

5.1. Euskara mota

Luis Baraiazarrak, beharizanen edo egokitasunaren arabera, euskara batuan nahiz bizkaieraz idatzi izan dau. Bietan, baina, egokiro eta jariotasun handiz.



Liburuetan nahiz gainerako idazkietan erabiltzen dauan euskarari dagokionez, argi erakusten dau iturri gardenetatik edan dauala. Batetik, ulerkorra eta erraza eta, bestetik, zehatza eta jasoa. Aberastasun handikoa eta ardura handiz jatortasuna zaintzen dauana. Gorago esan dogunez, ondo zaintzen ditu idazkiak presaka idatzi beharrean.

Hemen, bestalde, plazaratutako lanak baino ez ditugu aiatu. Nik badakit, igande eta jaietako berbaldiak ere idatzi egiten dituela, eta hainbeste urtetan zehar etenik gabeko jardunean idatzitako lanok bere harri bitxiak izango ditugula etorkizunean.

Bizkaieraz klasiko bat dogula esan daikegu, eta batuan izugarrizko erraztasuna erakusten dau. Euskara sakondu gura dauanak badauka zer ikasi Luisek eskaintzen deuskuzan lanetan. Argitaratu barri dauan *NIRE UMETAKO MEÑAKA* (2005, MEÑA-

KA) benetako harri bitxia dogu bizkaieraren ikuspuntutik begiratuta.

Labur esanda, astiro baino inoiz geratu barik, erle langileen antzera ekinaren ekinez izugarrizko lan piloa eskeini deusku, baina "lan azkarra lan alperra" esaera zaharra gogoan izan, eta, astiro baina eten barik, euskarari "tornua" emoten jo eta ke jardunez.

Horrela, hor eta hemen lore askotako nektarra batu eta ezti gozoa egiten jakin izan dau, edonork gozo-gozo dastatzeko eran eskainiz, *Nire umetako Meñaka* (2005) azken liburuan egin deuskun moduan

5.2. Izaera

Aurreko guzti hori horrela bada bere, Luisek euskara munduan egindako lana egokiro baloratu ahal izateko beharrezkoa dogu bere izaerari eta bizimoduari begiratzea.

Egin-eginean bere, pertsonaren neurria ez dabe egintza hutsak ageriko egiten. Arimak gorputzeko atal guztiei barrutik bizi-arnasa emoten deutesen moduan nortasuna izaten da egintzen bultzagarri eta pizgarri. Luis idazle izateaz gainera, gogoeta luzeetara ohitutako karmeldar zintzoa, bakartade-zalea bere badogu. Lanerako aparteko giroa, jakina.

Era berean, hurretik ezagutzen dogunok badakigu, jakin bere, adiskide jatorra, mendigoizale porrokatua, naturaren mireslea, ibiltari nekagaitza, eta kirolari nahiz kirozale handia dala.

Halan da bere, horrelako zaletasun batzuk ezkutatuta gorde behar izan ditu ordenagailuaren erraietan, hainbesteko lan mardulak egin ahal izateko ipurmasailak aulkiari ondo lotuta bizi behar izaten da eta.

Aurrerantzean bere, jarrai bedi jo eta su lanean, euskarak dannon ahaleginak behar ditu bizirik irauteko eta."

Patxi Uribarren Leturiaga

“URREZKO LUMA”


Nire joera Markina-Xemeingo txokoan, ezkutuan, txiri-txiri neure lantxuak egitea izan da. Holan jardun dogu eihoako hogeita hamabost bat urtean. Gaur plazara atera nozue; eta ez atera bakarrik, baita *Urrezko Luma* eskeini be. Horregaitik, eskerak bihotzez horretan zerikusia izan dozuen guztiok. Hau ez da lehiaketa baten irabaziriko saria, euskal letretako bati egiten jakon ohorezko aitortpena baino.

Burura lehenengo datorrena hau da: zer dala-eta? Merezi ete dogu? Behin baino sarriago ikusi izan ditut omenduak burua gordetzen, halako omenaldien duin ez diralako adierazpenak egiten. Nik ez neuke hortik jo nahi, barruak ez deustalako halakorik agintzen. Euskal Herrian, zorionez, asko dira isil-isilik euskal letrak lantzen ahalegintzen diranak, era batera edo bestera... Neure burua be horreen artean sartuko neuke. Baina, Patxi Uribarrenek ondo esan dauanez, liburugintzan eta euskal gauzetan elkarlanean edo taldean jardun dot nik gehienetan; batez be “Bostak bat” lantaldean *Adorez* saileko hiztegiak egiten edo “Karmel” aldizkariaren, “Karmel Sorta” izeneko bildumaren inguruan, edota “Bidegileak” bildumaren inguruan Julen Urkizarekin elkarlanean. Bakarrik jardun izan dodanetan be, zertan edo hartan lagundu deustien laguntzaile onak izan ditut inguruan; esaterako, *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa* euskerrara itzuli nebanean eta bardin *Nire Umetako Meñaka* idatzi dodanean. Horreen guztiengana zabaldu nahi neuke *Urrezko Luma*-ren ohore hau; izan be, nik izan neikezan merezimenduen zati bat lagun izan ditudan horreena be bada.

Elkarlana azpimarratzekoa dala uste dot; esaterako, Euskaltzaindian, Hiztegi Batuko lantaldean eta Gramatika Batzordean elkarlanean jarduten dogu, jakina. Gauza bera Bizkaiko Bertsozale Elkartean be; azken urteotan ez, baina lehenago, hamar bat urtean elkarteko idazkari izan nintzan...

Euskal idazlea? Legez edo ofizialki bai. Langile autonomoen agirian ogibidez idazle nintzala esaten zan; Markina-Xemeingo Udalaren ziurtagiria neban horretarako. Baina, izatez, handi geratzen jatan "idazle" titulu hori. Ni, izatez, euskal letretako langile xumea edo artisaua nazela esango neuke.

Era askotako lanak egin ditut: aldizkarietarako idazlanak, euskal hiztegiak, olerki eta bertso jarrietan zerbait egin izan dot, ipuinetan be sartu-urtenen bat bai, bizkaierazko klasikoen ikerketak, batez be Frai Bartolome Santa Teresarenak, *Bidegileak* saileko biografia laburrak, lau guztira, Julen Urkizarekin elkarlanean; *Bertsolari Liburuak* sailean, Jon Lopategi bertsolariaren biografia; hau neuk bakarrean burutua, Jon beraren eta beste batzuen laguntza baliotsuaz. Itzulpena izan da aspaldidanik landu dodan beste arloetariko bat. Eskolarako materialak egiten be



ahalegindu gara. Horreen artean sartuko neukez *Euskal Herriaren Historia I - II* "Gero-Mensajero"k argitaratuak eta batez be *Adorez* saileko hiztegiak "Bostak bat" lantaldeak eginak. Hiztegi horreetariko lehenengoak euskera hutsezkoak ziran, hau da, sinonimoen hiztegiak hasi zan lantaldea, gero definiziozkoak etorri ziran eta geroago hiztegi elebidunak (euskara-gaztelania, gaztelania-euskara). Gure helburua arlo horretan izan eitekean hutsunea betetzea zan. Gu horretan hasi orduko, hiztegi elebidunak baziran, baina euskera hutsezkorik ez. Gabriel Arestik eta Xabier Kintanak eginiko liburu bat bakarrik genduan eskuara: *Batasunaren Kutxa*. Baina liburu ha txikia zan eta ha argitaratu zan ezkerre hainbat urte igaro ostean, premiak bestelakoak ziran eta gure asmoak be goragokoak. Handik laster beste batzuen lanak argitaratu ziran; holan, guk eginiko argitalpen barri eta berrargitalpenekin eta beste askok eginikoekin, euskera hutsezko hiztegien hutsunea ondo beteta geratu zan, nahiz eta testuak hobetu eta gaurkotu beharra beti egon. *Adorez* hiztegien proiektuan liberatu legez sartzeari aukera ederra izan da niretzat. Talde honi esker egin nintzan ezagunago euskal letretan eta hortik, gerotxuago, etorri jatan Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko lantaldean sartzeko deia lehenengo, Gramatika Batzordean sartzeko deia handik urte batzuetara eta euskaltzain urgazle izendapena ondoren. Bestalde, ordura arteko lexikografia lanak aztertu eta sakontzeko aukera izan genduan, esaterako, Azkueren hiztegia, Plazido Mujikarena eta batez be Lino Akesoloren eta beste batzuen lana "Diccionario de Autoridades" obra handian. Orotariko Euskal Hiztegia be bai, baina hau artean amaitu barik egoan. Orain, osorik amaitu barri danean, hor agertu nahi izan deuskue batzuk aurreko lan guztia estaltzen legez, aurretik ezer baliokorik egin ez balitz legez. Autortu behar dot, Orotariko Euskal Hiztegia altxor eder-ederra dala, baina, zorionez, ez bakarra, eta bakoitxari berea emotea da zuzenbidea...

Itzulpenetan eginiko lana aintzat hartzekoa dala esango neuke. Euskal letretako langileoi itzulpen ugari egin beharra egokitu jaku, bai orain dala urte asko eta bai oraintsu. Gogoan dot,



ikastolen lehenengo urteetan kultura-elkarteetan hainbat testu egiten zirala, baina horreetariko asko erderaz egozan eta euskerara itzuli beharra izaten genduan. Hortik eskaera ugari etorri ohi jakuzan. Geroago, testu gaxak eta handiak itzuli beharra izan dot. San Joan Gurutzekoaren *Erromantzeak* itzultzea ez zan lan luzea, baina bai gaxa, gainera bertso neurtu eta errimatu itzuli nituan, originaleko neurri berean. Santa Teresa Lisieuxkoaren idazlan guztien itzulpena elkarlanean egin genduan eta nire gain izan zan, beharbada, lanik astunena: eskuizkribu autobiografikoak eta poesiak itzuli nituan eta lankideak eginiko itzulpenak berrikusi eta estilo aldetik obra guztiari batasuna emoten ahalegindu. Egin dodan itzulpenik luzeena eta astunena *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa* izan da. Komunikabideetan ez eban zabalkunde handirik izan, baina ni neu pozik geratu nintzan horrekin, Elizari eta euskerari ekarpen ederra egin neutselakoan.

Azkenez, *Nire Umetako Meñaka* liburua aitatu nahi neuke. Liburu hau Meñakako udaletxean aurkeztu zanean, hau esaten neban: “Hor buruan, baztertxu baten, gordeta neukazan gomutak, oroipenak, arakatzen hasi nintzan. Oroipen-kutxa horretatik argazki zaharrak atera nituan, noizbehinka argazki barriago batzuekin nahastean. Hasieran nik buruan, baztertxu baten, gordeta neukazan gauza horreek ez ebela askotarako emongo uste neban; horko iturria laster agortuko zala. Baina berbeak berbabidea dakar, kontu batek bestea, eta apurka-apurka honak guztionek gorputza hartu dau eta hau jaio da. Liburuak amaieran hau dino: *Oraindino asko luzatu leiteke hari hau, baina bere laburrean zuretzat jaki gozoa prestatu nahi neban.*

Eta zer aurkituko dau irakurleak liburu honetan? Orain dala 50 urteko Meñaka, gerra ostekoa, orduko bizimodua, ohiturak, pentsaera... mutiko baten bihotzean grabaturik egoana eta orain, nagusitan, berak kontakizun bihurturik idatzi dauana”.

Hauxe zan esateko neukana. Barrero be eskerrik asko hona etorri zarienoi eta sari hau niri emotea erabagi dozuenoi!”

Luis Baraiazarra Txertudi